

Sagardoa

Nazioarteko Sagardo Azoka publiko osoari irekiko zaio gaur Kursaaletan, dastaketak egiteko aukerarekin

Kronika - Erredakzioa 2019-11-24 00:00



Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00etara bitartean, mota guztietako sagardoak dastatu ahal izango dira, 10 euroan.

Bukaera aldera gerturatzen ari bada ere, III. Sagardo Forumean bada oraindik, makina bat aukera. Atzoz geroztik, ekitaldiei Donostiako Kursaaletan eman zaie segida; besteak beste, Nazioarteko Sagardo Lehiaketari.

Era berean, aurreneko aldiz, Nazioarteko Sagardo Azoka egingo da gaur, eta publiko orokorrari irekita egongo da. Sarrerak bertan erosi ahal izango dira, 10 euroan, edo aldeztu aurretik, www.sagardoforum.eus webgunearen bitartez.

Mundu osoko sagardoak eta Euskal Sagardoa, aukeran

Denera, 14 herrialdeetako 190 sagardok eman dute izena Nazioarteko Sagardo Lehiaketan, eta horien arteko onenak zein diren bihar jakinaraziko du epaimahaiak. Sommelierak, pommelierrak (sagardo dastatzaile adituak), enologoak, chefak, kazetariak eta gastronomia bloggerrak dira, besteak beste, lan hori egingo dutenak. Baina erabakia hartuko duen dastatze taldea sagardogileek, enologoek, Aldundiko teknikariek eta Fraisoroko laborategiko ordezkariak osatzen dute eta, arautegiaren arabera, ENACen bitartez sagardoan akreditaturik dagoen bakarra da.

Ez dira horiek, hala ere, sagardoak dastatzeko aukera izango duten bakarrik. Izan ere, lehiaketan parte hartzen ari diren sagardo asko dastatzeko aukera izango du gaur publiko orokorrak, aurreneko egingo den Nazioarteko Sagardo Azokan. Besteak beste, izotzezko sagardoak, zaporetakoak, lupulatuak edota apfelwinea izango dira aukeran; baita ezagunagoak diren Euskal Sagardoa Jatorri Deiturakoak ere. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte egongo da irekita.

Sagardo onenen berri, berriz, bihar emango da, goizeko 10:30etako ekitaldian.

[Kultura Astigarraga Hernani](#)


Erantzun ▼

Postu bakarragatik, ez da finalean izango Asier

Argazki erakusketa gaurtik, emakume

Euskeraren Eguna da bihar, ospakizun eguna

Asteburuko partiduak



Ikusienak



[Minutu gutxi falta ziren arte, balentriarako esperantza](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 01, 00:00
[Hernani](#)



[300 deskontu-bono gaurtik, ia 70 dendatan](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 02, 00:00
[Hernani](#)




[Ibai Parkearen inaugurazioa](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 29 [Astigarraga](#)



[Herritarrei ofizialki irekia, Ibai Parkea](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 30 [Astigarraga](#)



[Izenematea zabalik bihar, kiroldegiko ikastaroetan](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 01, 00:00
[Hernani](#)



[Odol emaleek zita, bihar arratsaldean](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 02, 00:00
[Hernani](#)

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)